

# **XVI. MENDEKO MEDIKUNTZAZ ZENBAIT BERRI**

**J. M. Satrustegi**

Hogei urte eta gehiago duen zorra ordaintzera noa hemen. A. Irigaray adiskidearekin. Amendux, hamaseigarren mendeko *irunshemearen* olerkia lehen aldiz argitaratu nuelarik (1), euskaltzale askoren gutunak jaso nituen, baina oharrrik garrantzitsuenak euskaltzain nafarrak igorri zizkidan. Sendagaien zirriborroak izkiriatzeko medikuek orduan erabili ohi zituzten txartel haietako batean, honela idatzi zidan:

«Ene adiskidea: Tenorez hartu nuen zure lan ederra. Kausimendu handia da hori eta euskaltzaleak poztuko dira: Tamale da Archivo hortan norbaitek sudurrak ez sattuza (paleografo dena) euskararekilako documentoak, beste gabe, hitzez hitz, argitara emateko linguistentzat: multikopistaz bada ere.»

Zure komentarioekin ez nago ados...»

Gero berak argitaratuko zituen zuzenketen berri aurreratzen zidan, eta gutunaren hasierako izenburuaren gainean gelditutako zurigune batean, honako azken ohartxo hau gehitu zidan: «Zure artikuloan irakurleak auziaren funtsa billatzen du.»

Eskariak ez zuen izkribu zaharraren azterketarekin zuzenean zer ikusirik, baina inun argitaratu ez ziren orri batzu bete nituen berehala. Irigaray jaunak ez zuen puntu horren argibiderik jaso eta aspaldi ahantzia nuen zirribo hura, zenduaren omenez kaleratzekoa den libururako gaiaren bila nembilelarik birreskuratu arte. Hatixe da, hain zuzen, orain ordaindu nahi nukeen aipaturiko zorra.

Esan behar da, noski, oso egoera berezian eta gogo txarretik egindako lana izan zela hura. Ez nuen horrelako gauzatarako zaletasunik eta euskal izkribu zaharrak arrotz ziren niretzat. Nik nekien euskara etxean gurasoengandik ikasia zen, inolako ikasketarik gabe. Amendux gaztearen olerkia agertzean Luzaiden nengoan eta neure irakasle izandako apaiz adiskide batek bultzatu ninduen —edo behartu!— eskuartean zituen bi izkribu zahar aztertzera.

---

(1) J.M. SATRUSTEGI. «Hallazgo de una elegía vasca del año 1564. Boletín RSVAP. Sn Sn., 1963, p. 63. *Archivo General de Navarra*. Proceso 14.852.

Ezjakina itsua bezala da eta, itsu-itsura, neure kasa egin nuen itzulpena. Harritu egiten naiz gaur une hartako ausardiaz, baina denbora berean hainbeste izkribu zahar eskuratu didan zaletasuna eman zidan lehen urratsak.

## I. EGILEAREN BERRI

Gaizki hazitako gazte baten bertso ederrak dira. Bizpahiru urterekin gelditu zen umezurtz, nahiz ez dugun bere jaiotegunaren berri zehatzik. Iruñean sendagile zen bere aita eta Gazteluko plazaren atzean bizi ziren, Nabarrera izeneko auzoan. 1547an galdu zuen aita eta urte baten buruan itzali zitzaion ama. Gurasoen hutsunea nabarmena da bere heziketan.

Horrelakoetan ohi denez norbaitek jabetu behar zuen umezurtzaz eta amaren aldeko aitona Pereton Garro-k eskaini zion legezko babesa. Erriberan bizi zen osaba barbera bat agertzen da, halare, arazo guzien arduradun. Hamabi edo hamahiru urtetan Zaragozara eraman zuen ofizioaren bat ikastera, eta oihalgintzan ari zen ugazaba baten etxean sartu zen mutil. Bere kontura jantzi behar zuen eta bere dirutik oinetakoak erosi. Dendan egindako lana doan ematea aski ez zela, berrogei libera ordaindu behar zizkion urtesari nagusiari.

Lehen saio hau gaizki atera zitzaion. Bost urterako hitzartua bazen ere, urte baten buruan eritu eta bere etxera eraman behar izan zuen Baltierrako barberak. Ebakuntza bat eginik hilabete asko igaro zuen ohean. Lanpostura itzuli zuen osabak, baina ez zegoen gaztea Zaragozan egoteko. Hamalau urte bete zituela esanez, alde batera utzi bere osaba eta Lope Echebelz izeneko beste ahaide batengana jo zuen.

Dirudienez, ibiltari, sosegu gutxiko eta hezikaitza zen mutila. Echebelz jaunak eman zion diruaz baliaturik, Sevillara joan zen «serbitzen» bizia ateratzeko asmoz: «A servir amos», dio auzi paperak. Sakelakoa jan orduko itzuli zen etxera. Flandes-era bidali zuen gero, baina lau hilabeteren buruan itzuli zen handik ere «y assi no tenía quietud ni hazia asiento en parte que lo enviasen».

Echebelz esku zabala agertu zen mutilarekin eta botiga bat ireki zion Iruñeko «Txapitel» kalean, 400 dukaten salgai onak barne zirela. Gezurra badirudi ere, gutxi iraundu zion altxorrek: urte batean dena jan eta zorpean gelditu zen botiga (2).

XVI.mendeko Iruñean, berandu arte ezagutu dugun herri giroa sumatzen da. Biztanleek elkar ezagutzen dute eta familiarki ematen dituzte epaileen aurrean zehaztasunak. Aipagarria deritzait, adibidez, denda ireki zuten tokiko aipamen hau: Lope de Echebelz «decidió poner en esta ciudad de Pamplona

---

(2) «Muchacho de poca experiencia y que no entendía de dicho oficio ni sabía los precios de la dicha hacienda, ni tenía orden alguno en estas cosas; y en ausencias que el dicho Amendux hacía y otros en que se envolvía perdió y gastó por su culpa propia la dicha hacienda.» (f. 409)

una botiga de sedas, lienzos, pannos y mercerías e otras mercaderías e de hazer lanas e otros tratos (...) el dicho Lope de Echebelz maior da a su sobrino Lope de Echebelz menor una casa y botiga que tienen en el canton de Chapitel desta ciudad, que afrenta con casa do al presente vive Martin de Santesteban, tratante; y con casa de Pedro de Aldasoro, espadero...» (f. 264).

Bidegabekeria guzien neurria gainturik presondegian sartu zuten gerta-kizun honen ondoren, eta zortzi hilabete zeramatzalarik ilunpean, honela salatu zuen bere egoera txarra 1567.eko irailean: «...demas de la costa que tiene en la carcel padece mucha hambre y necesidad y dolencias en su persona...».

Iritsi gara, beraz, bertsoan hain egoki adierazitako etsipenaldira. Une honetan idatzi zukeen olerkia.

Bi puntu nagusi argi beharrak ditugu orain: 1) Zein da auziaren funtsa, eta 2) Nola dakigu bera dela bertsoen egilea.

1) Botigako zorra nolabait ordaintzeko etxea eta lurrak —ardantzeak— saldu behar izan zituen, lege gizonen aginduz. Aitarengandik jasotako ondasunak asko baitziren, bestalde, haurtzaroko arduraduna auzitara eraman zuen zorren errudun izan balitz bezala. Baltierrako ahaide barberak kargua uztean eskuartean zituen gauzen zerrenda aurkezten du, bere horrekin hainbat gora-beheretan egindako gastuekin batera. Etxekalte izandako mutilaren ezajola eta zabarkeriari egozten dio xahuketa guziaren errua. Garbi gera bedi, beraz, Amendux gaztea izan zela auzi honen eragilea.

Ahaideak elkarren artean haserretu zituen mutilak. Oses ez da mutilarekin bakarrik sartzen; haren ustez Echebelz bera errundun ornen zen ez motzago lotzean mutila, nor zen jakinik: «...sabia y le costaba que el dicho Juan de Amendux era moco perdido y que daba mala cuenta de lo que se encomenda-ba.»

Bertsoen funtsa, beraz, garbi ikusten da eskuarteko paperetan: sosegu gabeko *irushemeak* aitaren ondasunak jan zituen umezurtz gelditzean. Denda haundi bateko zorrak ordaindu ezinik, espetsxean sartu zuten. Une larri horretako giro beltza utzi zigun olerkian. Lerro hauek galduko ziren, behar bada, bere haurtzaroko babesleen aurka auzitara jo ez balu mutilak. Epai honetako paper bilduman aurkitu dugu euskal orria.

Laguntzailerik ere bazukeen, halare, Amendux honek. Korteak deitutako Legebiltzar Nagusiko alguazil —ertzain— egin zuten, kartzelatik atera ondoren. Espetsxeako ate sendoen giltzak norbaitentzat astintzen zituen bakoi-tzean bazekikeen ongi baino hobeki barneko bizitzaren berri, fraile baino lehen izan baitzen sukaldari.

2) *Bertsoen egilea*. Beste arazo txiki bat argitzeko ere baliatu nahi nuke Irigaray jaunari eskainitako lan hau. Garbi al dago, galdegin lezake norbaitek, bera izan zela lerro eder harien egilea?

Amendux aitak hartzekorik ere bazuen heriotzeko orduan, eta larru-azalez jositako liburuska batean utzi zuen bezero zordunen zerrenda. Norbaitek

salatzen duenez, ez zioten hasieran jaramonik egin etorkin honi. Zorpean itorik ikustean gero semeak bere burua, eskuartean zukeen liburuskak. Abere goseak ezkurra amets.

Bi izkribu mota oso desberdinak agertzen dira orri hauetan: sendagintzako aburu asko eta sendagilearen diru kontuak; esku berberaren lana da. Aitarena, beraz. Orrialde asko dator gero, zuri. Hanhemenka sartutako oharra beste norbaitenak dira, olerkia barne dela.

Guretzat garrantzitsua da olerkiaren egilea nor zen jakitea eta auzi-bilduma orriz-orri ikustean, Amendux gaztearen zenbait firma aurkitu genituen auzimahaikoei egindako eskarietan. Lekukotasun hau begien aurrean genuela zalantzarik gabe ikusi zen Amendux gaztea zela bertsoen egilea.

Honela beterik gelditzen da Irigaray jaunarekin aspaldian nuen zorra.

## II. IRUÑERRIKO IZENAK

Euskaltzain ohiak gogoko zuen beste berririk ere bada XVI.mendeko orri hauetan. Iruñerriko toki-izen euskaldunak eta bertako biztanleen izen abizenak, besteak beste. Horrelako gehigarri bat oroigarri aproposa deritzait.

Herri izenei dagokienez, orduko idazkera kontuan izanik, ez da aldaketa haundirik agertzen: *Açoz*, *Artica*, *Cenborain*, *Çulueta*, *Taxonar*, *Yroz*, eta abar. Gaur egunean *Mutilba* delakoa, *Mutiloa*, *Mutilua*, eta *Mutillua* zen orduan. *Mutilua* gañña ere aipatzen da.

Toki-izenetan honako hauek jaso ditut: *AYCAGUERRE* «...una viña situada en termino de Cordovilla en la pieça llamada Ayçaguerre, tiene de luengo, ancho, alto y baxo desde el cielo hasta dentro en los abismos.» (Cf 304).

*CASCALLETA*. «...pieça nombrada en Cascalleta... habian visto y reconocido, y bareado y arinçado con la vara y medida de la dicha ciudad que pa ello esta puesto y señalado por el regimiento desta ciudad... que es honce arinçadas y media y diez pertigas y una ochaba» (f. 75). «Una viña en la endrecera llamada *Cascalleta*» (junto al camino de S. Pedro).

*COSTALADO*. «Sendas medias arinzadas en la viña del *Costalado*» (f. 282 v.).

*GAZTELUONDO*. «...en el termino de *Gazteluondo* que es termino del lugar de Arre» (f. 285).

*LAMILLERA* (f. 165). «Termino *Mellera*.»

*SAYQUIN*. «Termino de *Sayquin*» (f. 85).

Pertsona izenetan ere bada aipagarririk: 1) Herri-izena agertzen da askotan izen nagusiaren lagungarri; Micheto de *Gongora*, Guilen de *Otano*, Miguel de *Mutilloa*. 2) Norberaren lanbidea ezaugarritzat ematen duenik ere badago, Yohane Martiz el *cantero*, *horcero* de Guendulain, Ogerot el *pastor*, Menaut de Suescun *escribano*. 3) Ezizen edo izen-txiki batzu jaso ditut:

*Miguel eder, Johanes Lepaluce, Joana Peruluce, Gaspar moça* (motza) despeleta, eta Beltran *çuarondo el de Noayn*. 4) Hipokoristikoek harrera asko zuten, dirudienez: *Martinico* eta *Juanisco* ziren haurtzaroan hildako Amendux sendagilearen seme bi. *Martintxo de Sagaseta, Petritoa de Burguet, Peiot, Micheto el nodrizo* y *Michito de Açoz*. 5) «H» letra erruz agertzen da orri hauetan: *Johanes el de Hiribas, Lorinz de Hucar, Jules de Hondris* (Olondriz?) Casero de la huerta de Santa *Helinzia*, Johan de *hezcurra*.

Bertsuen egilearen izenak ere badu zenbait aldaketa. Berak izenpetutako eskarietan *Juan de Amendux* idazten du beti eta horregatik aukeratu nuen forma hori. Bere aitaren izena, Miguel de *Almandux* agertzen da behin. *Almendux* ere bai, eta *Al Mendux*. Azkenekoz, *Demendux, Pedro de Mendux*, eta *de Mandux*.

### III. MEDIKU ETA BOTIKARIOAK

Euskal Herriko Medikuntzaren historia egiten hasia da azken urte hauetan. Antzinako medikuen izenak jaso eta berri ematea da Elkargoaren asmoetako bat. Eskuartearen dugun auzi-bilduma honetan badira zenbait medikuren aipamenak.

1) *Miguel de Amendux*. Behin eta berriz aipatu dugu bere izena semearen bertsoak direla eta. Iruñeko medikua zen eta Gazteluaren atzeko kalean bizi zen. Montpellier hiriko eskola haundian egin zen mediku. Bere maisu haundi baten izen ona honela agertzen du bere izkribuetan: «...el famosísimo maese Falcon, mi maestro, doctor en artes y en medicina, y en nuestros tiempos en la arte de cirugía, único en la escuela de Montpellier.» (f. 10)

Hameka orritan idatzi zuen Medikuntzaz berak pentsatzen zuena: «Demandar al médico demostración es demandar palabra al mundo, porque cada uno de ellos carece de instrumentos y no puede pronosticar evidentemente (...) son artifices sensuales que juzgan las causas por los efectos. Ni puede dar en la medicina demostración evidente porque sola a la naturaleza conviene; porque el médico de demostración como el mudo de palabra mayormente es de nacimiento.»

Berpizkundeko aburu berriak oso garrizitsuak izan ziren Medikuntzaren Historian. Profesionaltasunaren oinarriak ezarri ziren, ebakuntzak pertsona bizietan egiten hasi, eta abar.

Amendux Europako ikastetxe oso aurreratu bateko ikasle izan arren, Medikuntzaz zuen eritzia enpirikoa zen: «No es maravilla que los hábitos que son *scientia, sapientia, prudentia, y entendimiento y arte*, teniendo tanta coligación se tomo la *scientia* por arte y la arte por *scientia*.»

Metafisika eta Matematikak dira bakarrik, bere ustez, *scientia* izena merezi duten jakintzak; eta Medikuntza arte bezala uzten du. Horrexegatik ez du ontzat ematen oinarritzko azalpen «definitio secunda» delakoa: «*Cirurgia* es

scientia en quanto es todo tres instrumenttos de manera de sanar, dieta, potio, et manualis operatio.»

Dirudienez, Anatomicaren eskola berria eta ebakuntzen abiada ausarta ez zitzaizkion Iruñeko medikuari atsegin. Jakin, bazekien aipatutako maisuarengandik joera hauen berri; baina Elizak ere Versalio gaitzetsi egin zuen esperientzia haiengatik eta ebakuntzaren etorkizuna ez zen une hartan batere garbi ikusten. Aurrekoen esana fidagarriago zitzaion berari.

Mediku ikasi bati zegokionez, filosofiaren ildotik ikusten zuen gizona eta pentsalarien aburu teorikoetan maisu agertzen da. Bere eskuizkribuetako zenbait gai aipatzea aski da horretaz jabetzeko. Abere eta pertsonaren arteko berezitasunak aztertzen ditu, esate baterako, teodizea edo etika ikastaroetako maisuen antzera. Gorputzaren hiru atal nagusiak, burua, bihotza eta gibela ipintzen ditu kemen guzien iturbutu, eragile, bakoitza bere mailan, horretatik ondore batzu ateratzeko. Sukarren iraupenak eta sendegaien oharrek betzen dute zati haundi bat.

Astrologia eta geometria ikasi beharrak ikusten ditu medikuentzat. Eguzkiaren eta ilargiaren eragina, besteak beste, honela agertzen du: «...las enfermedades crónicas ansi como las puras flegmaturas o melancólicas siguen el curso del sol, es a saber, una entera rebovolution suya que es segun todos los astrólogos un anno poco mas; y las agudas como puramente coléricas y sanguineas se determinan en una rebovolution de la luna por los doze signos del zodiaco que la cumple segun los mismos astrologos en veynt ocho dias poco más.» Eta gero, honela dio: «De astronomía has de entender que no ha de obrar el cirujano en el miembro estando en el signo de aquel miembro la luna; ni ha de obrar en hora infortunada, ni de planetas infortunados, como todos los astrologos lo tienen.»

Geometria zertako duen medikuak? Itxura denez, tontor, handitxu eta bestelako min materiatuak, borobilak ala eskinduak izan zitezkeen, eta sendatzeko bazuen bakoitzak bere zailtasuna. Geometriaz, nunbait, baten ala bestearen egoera alda zitezkeen: «Es que de la geometria ha de saber para reducir las ulceras sfericas o redondas en triangulares para que más facilmente pueda consolidar, la cual consideración es geométrica.»

Sal-erosketako paperetan hiru bat aldiz *barbero* hitza erabiltzen du beretzat. Auzian aipamena egiten dutelarik, beti *cirugiano* deitzen dute.

Ez gara gauza hauetan gehiegi luzatuko, baina jakingarri deritzagu horren berri ematea. Aberatsa zen Miguel de Amendux Iruñeko sendagilea. Etxea eta ardantzeak bazituen, batzuei eta besteei dirua aurreratzen zielako oharrak utzi zituen eta animalia asko, batez ere urdiak, hazitzen zituen eta saltzen. Iruñeko eliza nagusian zuen bere familiak hilobia. 1547.eko otsailaren 3an hil zen eta, bi egun aurretik, aita-amen hilobian ahorzteko agindu zuen, «en la claustra de la Seu, en la fuesa donde su padre y madre estan enterrados». Horrek esan nahi du irunsheme ligitua zela, ez kanpotik etorria. Bere emaztea, Maria Miguel de Garro, urte baten buruan hil zen.

2) *Juan de Osses*. Gizon honek hartu zuen bere gain Juan de Amendux, umezurtz gelditutako hiru urteko haurra. Izan ere, lehengusua zuen. Berez, Pereton de Garro, haurraren aitona izendatu zuten legezko babesle, baina Osses agertzen da beti mutilari laguntzen, gero esker txarra jaso bazuen ere.

Osses ere sendagilea da; «barbero de Valtierra», dio berak. Ez digu medikuntzako berri haundirik utzi. Amendux zenaren ondasunak gaizki zaindu zituelakoan auzitara eraman zuen bere lehengusuak. Gaztearen gaitzaz eta hainbeste joan-etorrietan izandako gastuen ondoan, berak jasotako zenbait pusken zerrenda aurkezten du epai mahaikoen aurrean.

Hona bere ofizioko tresna batzu:

Inventario de Juan de Osses, 1 de marzo de 1553.

«Ytem tres paños de barberia viejos.

Ytem seys serbietas de mesa muy traydos.

Ytem un rocel viejo de lienzo para poner en la puerta de la barberia.

Ytem unos manteles de mesa viejos de bascos.

Ytem un peinador viejo quemado.

Ytem un paño de barbas muy roto viejo.

Ytem una historia en lienzo viejo.

Ytem las barras de yerro de la ventana de la botiga.

Ytem la vara larga donde se solia poner el paño ante la puerta de la barberia.

Ytem en una caxeta la herramienta de cirujia para la cabeza.

Ytem un bacincico pequeño de arambre a manera de brasero.

Ytem nueve bacines de barberia viejos los cinco de collares y los cuatro llanos.

Ytem cuatro sillas para tener en la botiga de robre con sus respaldos (173-174).

Dirua tartean delarik edozein adiskidantza apurtzen da eta Osses Erriberako barberak bere burua auzitan ikustean, arazoan sartuak ziren ahaide guziak salatzen ditu: Amendux ganoragabetzat dauka, Echebelz arina izan zen mutilari berak nahi zuen guzia emanaz eta Oregar ere errudun dela dio.

3. *Domingo de Oregar*. Hirugarren sendagile bat ere bada Amendux-tarren familian. Zordunen zerrendan honako ohar hau agertzen da: «Mse. Domingo de Oregar coinado suyo xxiiij docados biejos enprestados quando estaba pelo en Çaragoca.» Kartzelan egondako mutila iloba zuen, beraz, eta diru askotxo aurreratu zion bere egunean. Amendux gazteak porrot egitean, Miguel de Oregar, medikuaren semeak alegia, bere parte eskatu zion eta hau gertatu zitzaion bertsuen egileari espetxera eramateko azken erantzunkizuna. Epailleak Domingo Oregar jaunaren izena aipatzean, «cirujano vecino de esta ciudad», esan ohi du.

4. *Martin Despinal*. Mutil koskorra ofizioa ikastera joan zelarik Aragoiko hiriburura, gaizkitu egin zen, eta Osses jaunari adierazi zion Zaragozako ugazabak: «Item martes veintidos de Oct. 1555 parti de Valtierra para Çaragoça por una carta que Martin de Mynano amo del dicho Juan de



Amendux me escribio diciendo por ella de como el dicho Juan de Amendux estaba muy malo con una apostema que se le habia hecho y que lo habia hecho visitar con maesse Martin despinal y que no se atrevía abrirlo sin que se hallase algun deudo suyo presente y ansi llegue en Çaragoça miercoles 23 de diciembre, hice visitar la dicha apostema al dicho Martin despinal y visto determinó por enfermedad peligrosa y dio su parecer que aunque se curase que seria de largo tpo. la curación, que le parecia que lo traiese a su natural porque tendria mejor curar y se hallaria mejor y asi lo determine de traer.» (f. 375).

5. *Francisco de Aguila*. Zaragozako sendagileak egin ez zion ebakuntza, Tuterako barberak egin zion Amendux gazteari: «le abrio la apostema maesse Francisco de Aguila.» Muskarian aspalditik indar haundia zuten juduek eta jende hauek oso trebeak ziren medikuntza arloan. Ez dakigu eskola horretakoa ote zen Aguila jauna, baina izan daitekeena da. Dena dela, bost hilabetez ohean egonik onera eman zuen eta sendatu.

6. *Lope de Santesteban*. Aipamen soila besterik ez badugu ere, Gazteluaren atzeko auzoan beste mediku bat Irueñean bazela, esaten zaigu. Berria honela agertzen da: «Lope de Santesteban cirujano. Vive en el barrio detrás del Castillo.»

7. *Johan de Monreal*. Zorretan utzitako bezeroen zerrendan badira hartzekoaren partzuerrak. Izen bat edo beste aipatuko dut: «Iten de una hija de Johan de Culqueta quatro ducados biejos para mse. Johan de Monreal y pa my.» Lehen begiratuan, beste medikuren bat izango zela iduri luke. Sendakuntza baten saria da eta bere maila berean ezartzen du. Botikako gastua ere izan laike, baina horrelakoetan aipamen zehatza egin ohi du: «Iten Sancho de Açoz de una cura que le hizi *medecinas y la cura* xx ducados biejos.»

8. *Msa. Charles*. Beste horrenbeste esan genezake aipamen honetaz ere; Medikukide edo laguntzaile izan zitekeen honako Charles hau: «Iten una cura de un muchacho de Lerga x ducados biejos pa mse. Charles y pa my.» Aurkipen haundirik ez daukagu ohar hauetan, baina euskaltzain eta sendagile omenduak biziki maite zituen puntuak direnez, gogotik eskaintzen dizkiogu.

9. *Pedro de Atondo*. Berez ez zen medikua, baina sendagintzarekin zer-ikusirik bazuen Atondoko apaizak. Eremu zabalean zabaldu zen bere izena eta gaizkiak ekartzen zizkieten etxera. Eliz-agintariak ez zuten begi onez ikusten lanbide hau eta epaitu egin zuten: «le acusa que haze officio de cirujano haziendo aceytes e ynguentos para curar con ellos enfermedades...» Sendagintza ez dela bere egitekoa, jakinerazten diote, eta apaiz lanetan ahalegindu behar lukeela: «...dando el pasto a sus feligreses de ordinario como deue con continua asistencia y no trate de hazer officio de medico ni cirujano ni menos haga ynguentos como Voticario pues deue sauer que demas que todos estos officios no conbienen al hauito y orden sacerdotal que professa...» Sei hilabetez etxetik atera gabe egoteko zigorra eman zioten. «Le condenamos en seys meses de ynstrusion los tres precisos y los otros tres Voluntarios, la qual tenga en su yglessia y lacumpla en forma ordinaria, y en

ocho ducados para la guerra contra ynfielos y gastos de justiçia por mitad y en las costas desta causa cuya tasacion en Nos reseruamos.» (3)

Apaizak zioen ez zuela sendagairik inoiz egin; bere eginkizuna eskuak erien gain ezartzea zela bakarrik eta deabrudunak sendatzea, batez ere. Horrela, izpiritu gaiztoaz eragindako norbait ekarri ziotelarik etxera epaileari bidali zion, berak sendatzeko esanez: «Han me venido el portador dela presente y dcho. moco con un moco spiritado del lugar de Oloriz, al qual le comence hazer requerimientos, y he allado que esta muy spiritado y haze grandes extremos y assi le he dexado quedo, pues el Lic Ybero siendo vicario general me porfio q. qualquier q. estubiese ordenado de epistola haria lo que yo ago, y assi no pretiendo conjurar a nadie, pues conmigo assi se quieren tratar, y darne castigo, no teniendo culpa alguna segun yo pienso..., y assi mandaran sus mercedes q. lo remedien.» (4)

Legegizonak erantzun zion, deabrudunak ez baino bestelako gaitzak sendatzez arduratzea debekatu zitzaiola. Izpiritu gaiztoen gain zukeen ahalmena ordu onean balia zezan. Bigarrenez, halere, auziratu zuten eta gogorra-goko zigorra egotzi zioten.

Pertsonaia honen kasua oso berezia da. Gaizki haundi bat etxera eraman ziotelarik, berorrekin gotzaitegira jo zuen, lehenik gotzaiari eta gero bere ordezkariari, mendera zezaten eskatuz. Izan ere, beldurgarria ornen zen. Alperrikakoak izan ziren nagusien otoiz, irakurketa eta esorzismoak. Biharamunean, kalonje eta buru nagusien aurrean esanarazi zizkioten Atondori bere konjuroak, eta baretu gaizkia (5).

Hamaseigarren mendeko medikuntzaz ari garenez, baditugu gai honetaz beste zenbait auzi. Alcoz izeneko apaiz batena, bere gaixotasunean hartutako sendagai buruz sortutakoa da (6). Botikako kontua gehiegizkoa zeritzolako edo pagatzeko biderik ez zuelako, auzira eraman zuen Joannes Verastegi-ko botikarioak. Erremedioen balioa neurtzeko ezarritako medikuak, calduendo eta Ciordia ziren. Honela zioen jaun hauen agiriak:

«Dezimos nosotros el doctor calduendo protomedico y el Licenciado ciordia, medicos vezinos desta ciudad que en la dolencia del bachiller alcoz clerigo, asi becinos desta dicha ciudad, las medicinas que sse llebaron y a su dolencia hordenadas por nosotros le hordenaron y llebaron de la botiqua dé Juan de berasteguj apotecario y azemos fe que todas aquellas que narran por la cuenta questa tassada por mj el dicho doctor çalduendo protomedico las tasse conforme al rançel questa puesto por Su magestad en este reyno de nabarra, y que todas las rreceptás escritas de mano ajena como los originales questan en el libro, estan hordenadas por nosotros, y lo mesmo todas las rrejiteraçiones questan en el dicho libro y rreceptas que sse llebaron pa el.

(3) *Archivo Diocesano Pamplona*. Atondo, 1595, C. 107, n. 20, fol. 1.

(4) *Ibid.* fol. 10 Ikus: Arch. Dioc. Pamplona, Atondo, 1598, C 110, n. 2.

(5) Ikus gai honetaz: J.M. SATRUSTEGI, «Pedro de Atondo, exorcista navarro del s. XVI». *Miscelánea José Goñi Gaztambide. De la Iglesia y de Navarra*. (Pamplona, 1984).

(6) *Archivo Diocesano de Pamplona*. Cartón 13, n.º 21 (Pamplona, 1569).

Desde el dia y mes de setiembre que comjeca a los diez y siete del dicho asta siete de octubre del año 1561 y porques berdad questan hordenadas las dichas medicinas y los llebaron sse tasaron conforme al dicho aranzel, lo qual consta por la cuenta questa firmada de mj mano dicho del doctor çalduendo, y que sse da fe q se suele elevar a ssemejantes libros y rreceptas y porques todo berdad dimos este testimonjo firmados de nuestras propias manos y escrito de mano ajena, fecho a bein y dos del mes de dezienbre de mil y qujnientos y sesenta y nueve años.

el doctor çalduendo

el licenciado çiardia.

Euskal Herriko Medikuntzaren Historia egiteko nun laneginik balegoke. Gure artxiboak aberatsak dira eta euskal izkribu zaharrak agertzen ari diren era berean, beste berri asko eta asko haizatu beharko lirateke.

Bitartean, lan hauetan hainbat ordu erre zuen ikerle Aingeru Irigaray sendagilearen izena merezi duen tokian utzi nahi dugu. Bere ikerlanak aipatu beharko dira gero ere eta euskaltzale guziok argibide asko zor diogu. Aitormen honekin doakio nere esker ona.